

FUTBOL ZELAIA ERABILTZEKO ARAUAK

- **Ordutegia:** astelehenetik domekara bitartean, 18:00etatik 22:00etara, ekaina, uztaila eta abuztuan. Irailetik aurrera, ordutegi hau alda liteke instalazioak izan ditzakeen beste erabilera batzuentzat edota belarraren egoeragatik.
- **Erreserbak:** Maruri-Jatabeko Udaletxean egingo dira, bulego orduetan. Eskatzaileak instalazioan egon beharko du eskatutako ordutegian zehar. Halaber, eskaeran adierazi beharko ditu: partehartzaile kopurua, ordutegia, eta dutxa eta aldagelak erabiliko dituen ala ez.
- Egun eta ordutegi berean erabiltzeko bi eskaera baleude, eskatzen duen lehenengoak izango luke ordutegia aukeratzeko lehentasuna.
- **Erreserba iraupena:** ordu betekoa.
- **Erantzukizuna:** zelaia erabiltzen den bitartean, eskatzaileak izango du instalazioaren ardura guztia, baita barruan dauden pertsonena ere.
- Erreserba behin betikoa izango da, udal bulegoetan atea zabaltzeko txartela hartu, dagokion tasa ordaindu eta fidantza uzten duenean.
- Zelaia erabilitakoan, udal langile batek instalazioaren egoera ona ikuskatu ondoren, utzitako fidantza itzuliko dio eskatzaileari.

Ordaindu beharrekoa (taldeko)

- Erroldatuak eta UBK txarteldunak:
 - 12 urtera artekoak: 5€ eta 10 euroko fidantza
 - 12 urtetik gorakoak: 10€ eta 10 euroko fidantza
- Erroldatubakoak: 40€ eta 10 euroko fidantza